

09/2025 UDALEKO OSOKO BILKURA

2025KO IRAILAREN 30AN EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURARENAKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea)

Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)

Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)

Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)

Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)

Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)

Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)

Agurtzane Nuñez Yarza (EAJ taldea)

IDAZKARIA:

Jon Burgaña Agoues

EZ BERTARATUTAKOAK:

Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)

Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

Anoetako Udaletxean, 2025ko irailaren 30an, arratsaldeko 19:00etan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ohiko osoko bilkura antolatu da, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakaritzapean, eta Jon Burgaña Agoues aritu da Idazkari lanetan.

Alkateak eskerrak eman dizkio Jon Burgañari, metaketa bidezko Idazkari Kontu-hartzaile ordezkari bezala azken udalbatza izango duelako eta jakinarazi du Erika Sagarzazu Kamino andereak uko egin diola Anoetako Udaleko Idazkari Kontu-hartzaile postuari eta dagoeneko lanean ari dela Udala postu hori berriro ere betetzeko.

Alkateak bertaratukoei eskerrak eman ondoren, bilerari hasiera emanez Alkateak saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

I. EBAZPENAK

1.- 2025EKO IRAILAREN 12KO EZ-OHIKO UDALBATZAKO AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Espedientean dagoen dokumentazioa kontuan hartuta, Udalbatzak honako hau erabaki du aho batez:

EBAZPENA

LEHENENGOA. 2025ko irailaren 12ko bilkurari dagokion aktak onartzea.

2.- UDALETXEKO ERABERRITZE ENERGETIKOAREN OBRAREN ORDAINKETARAKO KREDITU ALDAKETA ONARTZEA.

Espedientean dagoen dokumentazioa kontuan hartuta, Udalbatzak honako hau onartu erabaki du aho batez:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

EBAZPENA

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0000.627.153.20.01 2025	ETXABURU ETA ERROTALDEA ERABERRITZEA	4.700.000,00	65.000,00	4.635.000,00
GUZTIRA		4.700.000,00	65.000,00	4.635.000,00

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0000.622.920.03.01 2024	UDALETXEAREN BIRGAITZE OBRAK	645.273,77	65.000,00	710.273,77
GUZTIRA		645.273,77	65.000,00	710.273,77

BIGARRENA. Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailatza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

3.- UDALETXEKO ERABERRITZE ENERGETIKOAREN OBRAKO AZKEN ZERTIFIKAZIOA ETA OBRA AMAIERAKO ZIURTAGIRIAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Espedientean dagoen dokumentazioa kontuan hartuta, Udalbatzak honako hau onartu erabaki du aho batez:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Jakitun geratzea UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS, SL enpresak (IFK: B75002162) ANOETAKO UDALETXEKO ERABERRITZE ENERGETIKOA proiektuaren arabera egindako obrak jaso dituela, obraren guztizko kostua 709.383,80 €ko guztizko zenbatekoarekin (BEZ barne) izanik.

BIGARRENA. Obra horren obra-amaierako ziurtagiria onartzea, zuzendaritza fakultatiboak emana eta gauzatze materiala jasotzen duena, 492.661,85 € zenbatekoarekin.

HIRUGARRENA. Obraren prezioaren gehikuntza justifikatzen duen txostena onartzea, CORRECCIÓN INFORME FINAL. REHABILITACIÓN ENERGÉTICA DEL AYUNTAMIENTO DE ANOETA izenburua duena eta Joseba Inunciaga Landaburu jaunak, 2025eko uztailaren 30ean sinatutakoa. Txosten honetan jasotzen da obrek

64.110,03 €-ko igoera ekarri dutela (% 21eko BEZa barne) esleipenari dagokionez, % 9,94 hain zuzen. Igoeraren arrazoiak izan dira neurketak aldatzea, aerotermia aldatzea, Euskal Herriko armarría, Plazako fatxadako fokuen argiztapena eta barruko zenbait argiztapen-punturen aldaketa, eta azkenik prezio berriak onartzea.

LAUGARRENA. Obra-amaierako ziurtagirian eta 2025--60 zenbakiko fakturan jasotako 94.089,25 €ko kopurua aitortu, onartu eta ordaintzeko agintzea.

BOSGARRENA. Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

4.- ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ANOETAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA LUZATZEKO PROPOSAMENA.

Espedientean dagoen dokumentazioa kontuan hartuta, Udalbatzak honako hau onartu erabaki du aho batez:

EBAZPENA

LEHENA. Onartzea Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Anoetako Udalaren arteko hitzarmena luzatzea onartzen duen eranskina. Horren arabera hitzarmenak duen indarraldi berria da 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era.

BIGARRENA. Ahalmentzea Alkatea, Anoetako Udalaren izenean, eranskina sinatzeko, eta ondoren, Hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

HIRUGARRENA. Udal aurrekontuan izango duen eraginari dagokion forma eman jarduneko eta etorkizuneko aurrekontuen kudeaketan.

Eranskina

ERANSKINA, ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ANOETAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA LUZATZEKO.

Sinadura elektronikoaren tokian eta egunean.

ELKARTU DIRA

Alde batetik,

MAITE PEÑA LÓPEZ Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako foru diputatua eta Aldundiaren ordezkaria, Diputatuen Kontseiluak 2025eko irailaren 10ean egindako bileran hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako berariaz baimenduta.

Eta bestetik,

EGOITZ LUISA URKOLA, Anoetako Udaleko alkate eta ordezkaria, 2025ekorenko Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako berariaz baimenduta.

AZALTZEN DUTE

I.- Aldeek 2021eko abenduaren 21ean sinatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Anoetako Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmena, etxex etxeko laguntza-zerbitzua finantzatzeko.

II.-Hitzarmenaren hamalagarren klausulak hitzarmenaren indarraldia ezartzen du, eta adierazten du gehienez lau urtekoa izango dela. Nolanahi ere, hitzarmena sinatu duten alderdiek aho batez eta hura amaitu baino lehen adostu ahal izango dute lau urte gehiagoz luzatzea edo azkentzea.



ANOETAKO
UDALA

III.- Hitzarmenaren hamalagarren klausulan xedatutakoaren arabera, aldeek hitzarmenaren ondorio ekonomikoak zabaltzea adostu zuten, hasierako lau urteko indarraldia agortu arte, epe hori 2025eko irailaren 30ean amaituta.

IV.- Hamalagarren klausularekin bat etorriz, eta hasierako indarraldia amaituta, alderdiek egokitzen jotzen dute hitzarmena urtebetez luzatzea, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era.

Aurrekoa oinarri hartuta, bi alderdiek adostu dute eranskin hau formalizatzea, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENA.- Helburua.

Hitzarmena urtebetez luzatzea erabaki da, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era. Luzapen hori amaituta, alderdiek beste luzapen batzuk adostu ahal izango dituzte, betiere hitzarmenean aurreikusitako beste lau urteko gehieneko aldia errespetatzen badute.

BIGARRENA.- Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartutako konpromiso ekonomikoak.

Hitzarmenaren seigarren klausulan adierazitakoaren arabera kalkulaturako urteko gehieneko foru-finantzaketa 8.192.463,00 eurokoa izango da Gipuzkoako udalerrri guztientzat, honako partida hauen kargura:

Udalak	Aurrekontu-partida
2.017.706,00 €	1 0320.210.461.01.04 2025
6.053.116,00 €	5 0320.210.461.01.04 2026
Mankomunitateak	Aurrekontu-partida
30.411,00 €	1 0320.210.461.06.02 2025
91.230,00 €	5 0320.210.461.06.02 2026

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren gainerako zatiek irautea.

Dokumentu honetan aurreikusi ez den guztian, hitzarmenaren gainerako klausula eta xedapen guztiek indarrean eta aplikagarri jarraituko dute, eta horiek ere



ANOETAKO
UDALA



ANOETAKO
UDALA

aplikatuko dira dokumentu honi beharrezkoa zaion guztian.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela erakusteko, dokumentu hau elektronikoki sinatzen dute, sinadura elektronikoaren tokian eta egunean.

ANOETAKO UDALA
EGOITZ LUISA URKOLA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
MAITE PEÑA LÓPEZ

II. GOBERNU ORGANOEEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

ALKATETZA

6.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkatetzak 2025eko irailaren 5tik irailaren 22a bitarte,(445 zkitik 461 zkira) biak barne, emandako ebazpenen berri eman du eta zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

ANTOLAKUNTZA

7.- KONTROL-ORGANOAK EGINDAKO ERAGOZPENEZKO TXOSTENEN AURKA ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Ez da ekarpenik izan puntu honetan.

MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

GALDE-ERREGUAK

8.- GALDE-ERREGUAK.

EAJ taldeko zinegotziak, Nuria Carbonell Mirandak, hitza hartu du eta galdetu du ea nola dagoen hutsik dauden Udal lanpostuen gaia.

Alkateak erantzun du albiste onak eta txarrak daudela gai honen inguruan. Batetik, kontabilitateko administraria hasi dela jada lanean. Gazteria eta Kirol Teknikariaren programa bidezko kontratazioari dagokionez azterketara aurkeztutakoek ez dutela gainditu jarritako azterketa eta gaiari beste buelta bat eman behar diola Anoetako Udal gobernuak postu horrek duen garrantzia ikusita.

Beste postuei dagokienez aldiz, ez dagoela albiste berririk adierazi du Alkateak.

Bestalde, Alkateak adierazi du CGP enpresaren aholkularitza dagoela abian, kontratu txikiei buruzkoa.



Nuria Carbonell Mirandak berriro hartu du hitza eta ordenatzen onarpenaren inguruan galdetu du. Alkateak erantzun dio esanez urriaren erdian ez-ohiko udalbatza bat egingo dela beste gaien artean ordenantza fiskalak ere bertan tratatzeko. Horren aurretik bilera bat egitea proposatu dio Alkateak eta horretan geratu dira.

Alkateak dio pendiente dagoela baita ere etxebizitza tasatuen ordenantzaren behin betiko onespena.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 19:24tan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.

Idazkari Kontu-hartzailea

Jon Burgaña Agoues